

EUSKERAREN ERABILPENA Ospakizun liturgikoak eta euskeraren erabilpena.

MUNETXEK egokituta



Elizbarrutiko Apezpiku-Kontselluak, 1995eko Urriaren 3an oiko batzarrean bildurik, Euskal Pastoraltzaren Sailletik onako informazioa eskuratu eban:

1995eko Iraillaren 18an Euskal Pastoraltzaren Saillak eta Iruñeko Artzapezek alkar artean buruturiko billeran Iruñeko parroketako ospakizun liturgiko eta euskeraren erabilpenaz izketatu zan, bestek beste.

Artzapezen esanaren arabera, planteamentu pastoral egokia egiteko, gai oni buruz atzeman diran datu batzuk kontutan artu bearrekoak dira.

- Ukaeziña da gure parroketan, asko edo gutxi, euskal iztunak dagozala, euskera ama-izkuntza edo ikasi dabenak. Eta andituz doala “gaztelania lez, nafarroako Elizaren izkuntza ofiziala dan euskeraz” beren ikasketak burutzen dabezan aur, nerabe edo gazteen kopurua.

Kristau guzti oneik begi onez ikusten dabe parrokien ospakizunetan, lotura familiarrak dirala medio urbilletik ukitzen dituztenetan batez be (illetak, bataioak, leen jaunartzeak, sendotzak, eskontzak), euskeraren presentzia egokia izan daiten.

-Izan be, badira erabillera ori pizkanaka, ospakizun orokorretan be, sartzen daben parrokiek: *Gure Aita, Erruki Jauna, Ogi zerutik... olango kantu ezagunene bidez.*

-Bestaldetik, asmo onez eta alkar-ulertze giroan erraz sortu daitezken tentsio-egoerak noiz-beinka agertzen dira.

Gogoeta lasai baten ostean eta beti be, parroki alkarte desbardinaren egoera edo sensibilitatea kontuan artuz, Euskal Pastoraltzaren Sailla eta Iruñeko Artzapezen artean aipatutako billeran ausnartu eta ekiteko jarraibide batzuk aobatez onartuak izan ziran.

Elizbarrutiko Apezpiku-Kontselluak, Artzapezpiku Jauna buru zalarik, 1995eko Urriaren 3ko esandako oiko billeran, bere egin ebazan jarribide oneik.



1.- Irizpide orokorrak:

- a) Ospakizuneko persona edo pertsonen egoera linguistiko-kulturala.
- b) Familiaren edo ingurune familiarraren egoera linguistiko-kulturala.
- c) Ospakizunean parte artzen dabenen gixi gora berako portzentaia, euskeraren ulermailla ta erabilpenari dagokienez.

Ez da beti erraz izaten guztiak laketzea irizpide oneik aurrera erodateko unean. Zailantza barik, illetak zailtasun berezia dabe. Taiuzko informaketaren ondoren, erretorea izango da artu bear dan erabakiaren erantzulea.



2.- Euskeraren erabilpenaren balizko uneak:

Orientazio gisan eta kasu bakoitzean komenigarri dan einetan, euskera erabili daiteke ospakizunaren urrengo uneetan: sarrerako monizio laburra; damu-otoitza *Erruki Jauna* abestuz; Itzaren irakurgaiaren bat: aipamen laburra Omilian; eskariren bat Erriaren Otoitzean; *Gure Aita* abestia: abesti errikoiren bat jaunartzean; azken agurraren monizioa.

3.-Euskerazko mezak:

Bearrezkoa da Parrokia guztietan publikoki jakinaraztea mezak euskeraz ospatzen dabean iriko elizen zarrenda eta, jagokiezan egun eta orduak. Artzapez eta erretoreen aolku aproposalaz aztertu bearko da gaur egungo meza orrean banaketa naikoa dan ala ez.



4.-Liturgia liburuak:

Gomendagarria da parroki guztiek *Meza Liburua* eta Elizen arteko Biblia beintzat, euki dagiezan. Parroki batzutan komenigarria leiteke sakramentu – oikune liburu batzuk be eukitea.

Prosamen eta jarraibide oneik Iruñe ta Tuterako Eleizabarrutietako beste lekutan be ezarrera euki leikie eta euki bear dabe, alan be parroki bakoitzaren egoera ta bereiztasunei kasu eginez.

Artzapezpikutegian bere egoitza dauen Euskal Pastoralaren Sailla prest dago edozein argibide edo lagunza-zerbitzuak bear dabena eskeintzeko. Zentzu onetan, pentsatzen dabil ildakoen ospakizunetarako lagungarri labur bat eta simplea euskeraz prestatzea, bertan, sarrera eta azken agurraren monizioen eredu desberdin batzuk; Erriaren Otoitzerako eskari batzuk, eta abar agertuko diralarik. Nai dabean parrokiek bere garaian material au eskuratuko dabe.

